

EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA: DOKTOREGO AURREKO KONTRATATUEN MUGIKORTASUNA (EGONLABUR 2026 PROGRAMA. B MODALITATEA)

Deialdiaren xedea:

Laguntzak ematea beka aplikatzen den zentroetan ez beste batzuetan doktorego aurreko egonaldiak egin ditzaten prestakuntza bidean dauden ikertzaileek.

Onuradunak:

Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak 2025-2026 ikasturteari dagokionez ematen duen Doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako **laguntza berri baten onuradun** diren ikertzaileen mugikortasuna. Pertsona horiek jardunean egon beharko dute.

Diru laguntzen ezaugarriak:

Egonaldiak 2026. urtean hasi beharko dira.

Laguntzak eska daitezke **120 eta 180 egun arteko egonaldi bakarra** egin ahal izateko, atzerriko unibertsitateetan, ikerketa zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I +G+b-ren esparruan diharduten enpreetan, betiere aplikazio zentroa ez den udalerrir batean badaude eta egonaldiak bizilekua aldi baterako aldatzea badakar.

Eskaerak aurkezteko epea:

2026/01/15-2026/02/16

GARRANTZITSUA: eskatzaileek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean.

Eskaera aurkezteko era:

Eusko Jaurlaritzaren aplikazio elektronikoaren bidez, helbide elektronikoan, telematikoki eskura daitekeen formularioaren bidez soilik beteko da

<https://www.euskadi.eus/informazioa/laguntzak-doktoretza-aurreko-egonaldiak-egonlabur/web01-a3predoc/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak aplikazio elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira.

Aplikaziora ziurtagiri elektronikoaren bidez sartuko da.

Behin eskabide telematikoa erabat bete denean eta, aplikazioaren bitartez, artikuluko 5. oinarriko 4. atalean adierazitako dokumentuak erantsi direnean, eskatzaileak eskabidea

erregistratzeko prozesua gauza dezake, Egoitza Elektronikoak onartzen dituen sinadura elektronikoaren sistemetako edozeinen bidez.

Hori ziurtatzeko, eskatzaileak dokumentuen erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztageria E/E» aukerarekin. Ez da onartuko erabat modu elektronikoan bete eta erregistratutako eskabiderik.

GARRANTZITSUA: eskaera hau aurkezteko **ez** da behar UPV/EHUko Ikerketa errektoreordearen sinadura.

Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):

zientzia.ikerketa@euskadi.eus